



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

Mahastizaintza eta Enologia zerbitzua
Servicio de Viticultura y Enología

2023-2024KO MAHASTIZAINNTZA KANPAINA ARABAKO MAHASTIZAINNTZAKO ETA ARDOGINTZAKO SEKTORERAKO ERRONKA ZAILA

ARABAKO ERRIOXA

2023ko mahats bilketaren ostean, azarotik eta otsaila ondo aurreratu arte, tenperatura leunak izan ziren, eta azken urteotako batez bestekoaren antzeko prezipitazioak. Azarotik martxora metatutako prezipitazioa 160 mm eta 283 mm artekoa izan zen, eta prezipitazio gailurrak 18-27 mm-koak izan ziren abenduaren hasieran eta otsailaren amaieran. Ez zen izotz negua izan.

Udaberriaren hasieran, martxoan, tenperatura altuak izan ziren nagusi, eta mahats bilketaren ondorengo geldialdi begetatiboaren ostean, tenperaturak igo zirenean, mahatsa kimatzen hasi zen. Martxoaren erdialdean, mahastiaren egoera fenologikoa zonaren eta barietatearen arabekoa zen. Mahatsondoa begi haziko egoeran zegoen (B2) Samaniegon, esaterako; Lapuebla edo Oionen, berriz, hosto zabalduen egoeran (E) zegoen, eta bazirudien mahastia aurreko urteetan baino aurreratuago zetorrela.

Apirilaren 19an, erradiazio izozte txiki bat izan zen, -2°C-ko balioekin, eta zona gehienetan izan zuen eragina, nahiz eta modu desberdinean izan: ibarbideak, Ebro ibaiaren inguruko zonak eta landaketa berriak kaltetuago geratu ziren. Iozte horren ondoren, egun eguzkitsuak izan ziren, eta, egun horietan, adi egon behar izan zen, gerta zitezkeen erreduren aurrean. Oro har, eragina % 10-40koa izan zen, baina ez zirudien errendimendu globala arriskuan jarri zenik, baina landarearen zikloa apur bat moteldu zuen, nahiz eta maiatzaren erdialdetik aurrera berriz ere eritmoa berreskuratu. 2022an eta 2023an lehorte orokorra izan ondoren, 2024an ohiko prezipitazio balioetara itzuli da. Oro har, hazkunde begetatibo ona izan da, prezipitazioek lagunduta, eta, ondoren, tenperatura eta intsolazio egokiek lagunduta. Maiatzaren erdialdeko prezipitazioek eta tenperatura egokiek landareari baldintza hidriko eta fisiologiko onetan hazkunde esponenzialeko garaira iristea erraztu zioten. Loraldia (I1) ekainaren erdialdean hasi zen, "lore galtze" zantzu batzuekin, eta, azkenean ikusi den bezala, horrek ekoizpen osoari eragin dio. Halaber, baldintza meteorologiko onuragarriek landarearen hazkunde begetatiboaren eta fruituaren arteko lehia suspertu zuten. Hori dela eta, maiatzaren hasieratik punten mozketak egin zen, udaberriko kimaketa, udako kimaketa eta kimu berrien kimaketa. Landare osasunari dagokionez, ekainaren erdialdean egoera ezin hobean iritsi zen, tenperatura freskoei esker, eta hezetasunik pilatu gabe. Hala ere, zurinaren aurkako tratamenduak egin ziren, gaixotasun endemikoa baita.

Kolore aldaketaren hasiera (M1) abuztuaren 6an hasi zen, gutxi gorabehera, ohi baino 10 egun geroago. Abuztua hilabete beroa eta lehorra izan zen. Bi ekaitz izan ziren, zonen arabera intentsitate aldakorrekoak, bat abuztuaren hasieran, eta bestea, gogorrena, abuztuaren erdialdean. Kopuru handiena Bastidan eta Eskuernagan metatu zen, eta txikiena, berriz, ekialdean: Lapuebla, Bilar... Nolanahi ere, zona batzuetan ureztatu egin zen estres hidrikoa arintzeko, estres horrek hosto basalei, mahasti gazteei eta arratsaldeko eguzkiak gehien jotzen dituen mahastien aldeei eragiten baitzien.

Arabako Errioxako mahats bilketa abuztuaren 25ean hasi zen. Ohikoa den bezala, lehenik eta behin barietate zuriak eta beltz pixka bat bildu ziren. Geldialdi txiki batzuk izan ziren, irailaren 2, 5 eta 6ko

euriteen ondorioz, eta geldialdi nabarmen bat, irailaren 20 eta 21eko eurite ugarien ondorioz. Meteorologiak eragindako geldialdi horiez gain, mahats bilketa ezin izan zen normaltasunez egin, eskulana falta zelako, mahats bilketa beste bilketa batzuekin gainjarri zelako. Egoera horri gehitu zitzaion mahats bilketa, hasieran eta ohiko parametroen arabera, atzeratuta zetorrela, baina baldintza klimatologikoak ikusita, atzerapena berreskuratzen joan zen, eta, kasu batzuetan, mahats beltzaren heltzea zuriaren heltzera aurreratu zen. Horren guztiaren ondorioz, mahats bilketa "ezustean" hasi zen, eta ez zen "erritmo onean" bildu irailaren 17ra arte.

Ikusi da heltzea, normalean 20 egun ingurukoa izaten dena, aurten laburtu egin zela, baldintza meteorologikoengatik, eta prozesua zaildu egin zela, azkarrago egin behar izan zelako, eta urriaren 7rako, astearterako, ia lursail guztiak bilduta zeudela.

Zailtasunak zailtasun, mahatsa, oro har, osasuntsu sartu zen upeltegian, eta ikuspegi enologikotik, heltze egokiarekin eta oso kalitate onarekin, oro har, baita kalitate bikainarekin ere salbuespenezko kasu batzuetan, nahiz eta kantitate txikian. Hain zuzen ere, Kontseilu Arautzailearen datuen arabera, aurreko kanpainan baino askoz ere mahats gutxiago bildu da, 68 milioi kilo inguru, hau da, aurreko urtean baino % 30 gutxiago, batez beste. Murrizketa hori, alde batetik, uzta berdearen ondorio da, eta, bestetik, kanpainan zehar eragin handia izan duen meteorologiaren ondorio.

Mahatsaren kalitateari dagokionez, urteko osasunagatik eta baldintza meteorologikoengatik egoera bikaina aurreikusten zen, baina hasierako egoera hori aldatu egin zen bilketaren hasieran. Horrela, euria egin aurretik bildutako mahatsen kalitateari eutsi zioten graduaren igoeraren kontura, baina euria egin ondorengo bilketan kalitatea kaltetu egin zen, gradua handitu arren, eta botrytis eta gorrin foku isolatuak sortu ziren. Hala ere, ez zuten kalte nabarmenik eragin hego ukituko haize bortitzari esker, eta gauetan tenperatura epelak izan arren. Beraz, kalitate oso ona izango dugu euria egin baino lehen bildutako mahatsaren kasuan, eta, mahatsa mahatsondoan apur bat gehiago mantendu den kasuetan, heltze fenoliko handiagoko eta kalitate oneko mahatsa.

ARABAKO TXAKOLINA

2023ko udazkenean eta neguan tenperatura beroak izan ziren Aiarako Kuadrillan. Amurrion 20 °C inguruko balio maximoak izan ziren urtarrilean, eta martxoan batez besteko tenperatura minimoak 6,5 °C izan ziren. Oso gutxitan egon ziren balio negatiboak: urtarrilaren 20an -3,9 °C-ra iritsi zen, eta martxoaren 6an -0,4 °C-ra. Horrek ez zuen eragin negatiborik izan mahastian. Prezipitazioei dagokienez, negua nahiko lehorra izan zen, otsailera arte, horixe izan baitzen hilabete euritsuena, 205 mm-ko prezipitazio metatuarekin. Ondoren, maiatza izan zen (118 mm). Udaberriak hezetasun handia utzi zuen, eta tenperatura epelekin batera, gorrina garatzen lagundu zuen. Horren ondorioz, tratamenduak behar izan ziren, eta euria berriro ere zaildu egin zituen. Maiatzean, prezipitazio kopuruari eutsi zitzaion, eta euriteak eta tenperatura altuak txandakatu ziren. Ekainaren erdialdean, aurreko kanpainak baino pixka bat beranduago, loraldia hasi zen.

Uztaileko lehen astean, puntak mozteko eta landare estalkia kontrolatzeko lanak egiten jarraitu zen; izan ere, hazkunde begetatiborako baldintza onak zeudenez, tratamendu fitosanitarioak bezala, indartu behar izan ziren, eta, horrela, gorrina ondo kontrolatzea lortu zen. Uztailean, aldiz, nahiko lehorra izan zen, neurrizko tenperaturekin eta egun oso haizetsuekin, eta gorrina kontrolatzen lagundu zuten. Abuztuak uztaileko joerarekin jarraitu zuen, eta landaretza kontrolatzen jarraitu zen, hostoak kenduz, tratamenduak errazteko. Hilaren hirugarren astean hasi zen kolore aldaketa, iaz baino pixka bat beranduago, Hondarribia Beltza bezalako barietate beltzetan.

Irailean tenperaturak neurrizkoak izan ziren eta estres hidrikoa neurri batean arindu zuten ekaitzak izan ziren. Horrela, hilaren erdialdetik aurrera heltze prozesuak aurrera egin zuen, eta bildutako laginetan graduaren igoera hauteman zen. Irailaren amaieran, hilaren 27an, hasi zen mahats bilketa Aiarako eskualdean barietate goiztiarrekin, hala nola Riesling eta Chardonnay barietate nagusiarekin, eta urriaren 14tik aurrera Hondarribi zuri eta Petit Courbu bezalako barietate berantiarrek biltzen hasi ziren Urriaren amaieran amaitu zen mahats bilketa, eta urriaren 23an ia lursail guztiak bilduta zeuden. Upeltegian sartu den mahatsa osasuntsu eta kalitate onarekin sartu da, baina kilo gutxi sartu dira. Horregatik, ekoizpenari dagokionez,

errendimenduak nahiko txikiak izan dira, baita 2023koak baino txikiagoak ere, 2022koa baino askoz txikiagoa izan zena. Hala ere, ardoen kalitatea behintzat oso ona izango da.

Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzua

Guardia, 2024ko azaroaren 29a